

Whatsappeko haurrak handitzen direnean...

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Gaur egun Whatsappeko profilak betetzen dituzten haurrek handitutakoan izanen dituzten elkarrizketa posibleak idatzi nahi nituen, baina ez naiz horretarako gai sentitzen, ez zait ateratzen. Zer irudituko zaizkie argazki horiek? Zer ondorio izanen ditu eurengan horiek plazaratu izanak? Zer jarrera hartuko dute? Hemendik 18 bat urtera sortuko diren elkarrizketa horiek begi-kliska bidezkoak izanen dira beharbada (orain atzamarrezkoak diren bezala). Hainbat hizkuntzatako hitzak tartekatuz irudi-

katzen ditut, euskaraz, espero dut; funtsean, betiko amets eta beldur berekin. Robotak ere izan daitezke solasaldi horien parte, aurki SciencEkaitza galan aurkeztuko duten Sophiaren bertsio hobetua, adibidez. Heldu den ekainaren 7an, zientzia jende guztiari irekiz Iruñeko Baluartean egingen den bestan aurkeztuko du David Hansonek «munduko robotik enpatikoena». Sophia bera bada bere burua aurkezteko gai, egia erran: «Teknologia hutsa baino gehiago naiz. Jendearekin bizi nahiko nuke. Lagun zaitzaketet, entretenitu, adine-

koei lagundu eta haurrei erakutsi ere bai». Emozioen inguruan ikasten hasi berri da; pertsonekin duen interakzio bakoitzak eragin bat du bere garapenean eta izaeran. Guri gertatzen zaigun bezala. «Kontzientziadun makina bihurtzea dut amets», dio. Berarekin gaiztoa izan gabe, bururatzen zait zoragarria izan daitekeela lanik txar eta arriskutsuenak betetzea ere, meategietakoa kasu, jendea horietaz libratzeko. Baina amestera iristen bada, zerk bereiziko gaitu berarengandik? Kasketaldi eta maniek soilik? •

PP-PNV amarru akordiotik M26ra. Guztiok, pentsionistak

Miseriazko 400-500-600-700 euro kobratzen dituzte 247.000 euskal pentsionistak. Ba ote dago jeltzalerik PP-PNV akordioaren ondorioz pentsioak 12 eta 21 euro artean igotzeak (soilik 2018an eta 2019an) bizitza duina bermatzen duela pentsatzen duenik? EAJk Espainiako Aurrekontu Orokorretatik euskal enpresa eta proiektu jakin batzuentzat lortu nahi dituen milioi euro batzuentzat, beren bozka bazka nagusi diren pentsionistak trukerako txanpon gisa erabiltzea zilegi da jeltzale kideentzat?

Kontsumo prezioen indizearen gaindiko igoera “jarabe sendagarria” dela saldu nahi izan digu garai bateko saltzaile iruzurtien antzera Aitor Esteban diputatu jeltzale bozeramaileak, jakin arren miseriazko oinarriari aplikatuta emaitza hutsaren hurrengoa dela. Gezurra eta amarru saiakera, bikoitza iraina! 68an gazte eta orain pentsionistak direnak ez dira mututu, alabaina: “Bataila hau irabazi egingo dugu!”. Lehenik 1.080 euroko pentsio duina, ondoren kontsumo prezioen indizea, emakume eta gizonen arteko arrakalarekin bukatzea, alargunen egoera la-

rria... Aldarrikapenek asteleheneroko bozgorailuetan jarraitzen dute, baina urrun dago oso akordioa. Gaur arratsean neurtu ahalko dugu PP-PNV amarru akordioak arrakala eragin duen pentsionisten batailan ala nahiko muskulu ba ote duen alderdi biak harago mugiarazteko. Pentsa, AGI-JUPENS ia-ia eroria da amarru sarean. Baina presio egiteko egoera politikoa ezin egokiagoa dugu, hauteskunde atarian gaude eta bereziki fratrizida da PPren eta Ciudadanosen arteko hiena lehia. Bada, batu gaitezen batailara, guztiok gara-eta pentsionistak. •

**Xabier Mikel
Errekondo**